

Euskal Eskola Publikoaren Lege Zirriborroari Iradokizunak



1

AHOLKU BILDUMA

© Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioa
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Publizitate Zerbitzua
Wellington Dukea 2, Gasteiz
Diseinua: Sormen Creativos
Inprimatzailea:
Lege gordailua: BI-1332-90
ISBN: 84-7542-815-0
2.000 ale
Argitaratze data: 1990eko ekaina

**EUSKO JAURLARITZA
EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**

Euskal Eskola Publikoaren Lege Zirriborroari Iradokizunak

Gasteiz, 1990eko ekaina

Oharra: Euskararen Aholku Batzordeak honako honen bidez jaulkitako iradokizunen nondik norakoa ulertzeko, ikus Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1989ko urrian argitara emandako "Euskal Eskola Publikoaren Lege-zirriborroa" izeneko argitalpena.

Euskal Herriko irakaskuntza sistema gizarte normaldu bati dagokion eskolaren aldeko apustuan erabaki garrantzitsu baten atarian aurkitzen denez gero, Euskararen Aholku Batzordeak, euskararen normalkuntzaren ikuspegitik, eta beti ere bere eginkizunari jarraiki, honako iradokizunak azaldu nahi ditu, Jaurlaritzak, ongi baderitzo, aintzat har ditzan.

Ikastolek publikotasunera pausoa emateko gogoia erakutsi dutenean, areagotu egin da Euskal Eskola Publiko berri baten premia. Horretarako irakaskuntza publikoaren zein ikastolen emana bildu eta batêratu beharra aldarrikatu da bataren nahiz bestearen alde onez baliatu ahal izateko.

Euskararen Aholku Batzordeak eskola publikoaren gaiaren inguruan egon litezkeen iritziak errespetatuz, ezinbestekotzat jotzen du ondoren azalduko dituen oinarriko eritziak aintzat hartzea, Euskal Eskola Publikoari lego-kiokiena ongi bete dezan.

1.- ESKOLA PUBLIKOAREN EUSKAL IZAERARI BURUZKO OINARRIZKO ERIZPIDEA

1.1.- Euskal Eskola izan nahi duen irakaskuntza erakundeak, euskal gizartearen ahalegin fruitua jasoz, bertan errotua eta tinkatua behar du izan, euskara eta euskal kultura ardatz nagusitzat onartuz.

1.2.- Hemen aipatzen den eskola eraiki ahal izateko ezinbestekotzat jotzen da ere eskola inguruko talde sozialen oinarriko adostasunaren beharra. Eta honek ez luke hain zaila gertatu beharko. Izan ere, hizkuntza eta kultura guxtitu baten galera ez da hiztun eta giza talde horientzako galera bakarrik, baita beste guztientzat ere, eta batez ere gertuen daudenentzat. Ekologiaren arazoa, adibidez, denon zeregintzat hartzen bada, orobat hartu beharko litzateke gizakiak sortu duen tresnarik gorenetaoaren babesarekin, hizkuntzarekin alegia.

1.3.- Testuinguru honetan, Euskal Eskola Publikoak, Euskal Autonomi Elkartean zein Nafarroan euskarari emandako lege araua abiapuntutzat hartuta, eskolaren eginkizuna ibilbidean bideratu eta osatu egin beharko du. Euskal Autonomi Elkartean, esaterako, Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarriko 10/82 Legea (aurrerantzean 10/82 Legea), eta berorrek erakusten duen borondatea, ahaztezina da. Aipatu legearen garapena jarraitu eta hedatu egin behar da, ez baita euskararen egoera oraindik normaldu.

1.4.- 10/82 Legeak dioen bezala, euskararen normalkuntzarako zutaberi tinkoenetarikoa eskola bada, honen zeregin nagusia hain zuzen, dakienaren euskara aberastea eta ez dakienari irakastea da. Eta helburu hori berea egin behar du euskal izena daraman eskolak, pribatuak nahiz publikoak.

1.5.- Euskal Eskola Publikoa irudikatzerakoan, egungo egoera eta joera benetan abiapuntutzat hartu behar dira. Batetik euskal eskolaren aintzindari izan den ikastolarena, eta baita ere, azken urteotan behintzat, hainbat eskola publikotan eta zenbait pribatutan ere, euskalgintzan egin diren ahaleginak.

1.6.- Euskararen eskolaratzeak, euskararen normaltzea ezezik, eskolaren hobetzea dakar. Beste eskola elebidun askotan ikusi diren hobekuntzak gurean ere frogatu dira, zenbait baldintza bete direnean. Ikus, adibidez, EIFE az-

terketak. Beraz, Euskal Eskola egitea, eskola elebiduna eta ona egitea da. Kalitatea eta elebitasuna eskolaren ardatz bihurtzen direnean, honek beste hobeak asko erakartzen ditu berarekin batera, hala nola, eskolaren antolamendu koordinatuagoa, gurasoen partaidetza handiagoa, irakasleen prestakuntza egarri ugariagoa eta ikasmaterial zein programakuntza egokiagoen etengabeko bilaketa.

2.- ESKOLA PUBLIKOAREN EUSKAL HELBURUAK

2.1.- Euskal gizartean errotua izateari dagokion eginbidea beteko du Euskal Eskolak, pribatu zein publikoak. Irakaskuntzak bertako kondaira, kultura, izaera eskakizunez, heziketaren eginkizunari eutsiz, egituratuko ditu bere irakas programa, jarduera eta egitura osoa. Guzti hori egungo errealitatean erroto eta geroa eraikiko duten pertsonak hezitzea dagokiola kontutan hartuz.

Euskal gizartearen garaian garaiko ezaugarriarik adierazgarrienak ezagutzen, antzematen, lantzen eta garatzen saiatuko da beti ere eskola dagokion eginbidean.

2.2.- Eskolak, gizarte integratu baten aldeko jokoan, hiritarren gogoia, nahia eta erabakiak bateratzen lanik egin beharko du. Bertako bi hizkuntzak denok jakitea da gizarte integratu bat egiteko biderik zuzenena. Edo bestela esanda, erdaldunei euskararik ez irakastea diskriminatzailea dela esan daiteke.

Edozein eskualde soziolinguistikotan, euskaldun eta bidebatez elebidun osoak bideratzeak dirudi (behar diren epe eta laguntza guztiekin, jakina, baina xederik galdu gabe) giza mailako integrazio biderik eraginkorrena.

Baina bi hizkuntza ofizialetan gaitasun osoa ziurtatu behar duen hezkuntza sistemak ez luke horretan gelditu behar, gizarte modernoak eleaniztasunaren beharrari erantzutea eskatzen bait du.

2.3.- Egiako elebitasunaren aldeko apustuan 10/82 Legeak argi eta zehatz jasotzen ditu eskolak hemen bete eta lortu beharko lituzkeen helburuak. Euskal Eskola helburu horiek gogoan hartuz antolatuko da, euskaraz komunikatzeko gaitasun osoa ziurta dezan.

Horretarako, euskara eta euskaraz ikasteaz gain, berau osatzeko eta aberas-teko lan eta ekintzak ere bultzatuko ditu.

2.4.- Euskararen irakaskuntzak, euskaraz ikasteak, elebidun izateak (euskaraz ikasten dutenak bakarrik dira elebidun Euskal Herrian) onik egiten dio ikasleari; arlo horretan eginiko azterketek argi eta garbi erakusten dute elebitasunaren abantaila. Euskarari uko egitea heziketari bizkar ematea da.

2.5.- Eskola elebidun ona egiteak kalitatearen garrantzia duela esan da oinarritzko erizpideetan. Ez da esan, ordea, hori erraza denik. Dagoeneko nahiko esperientzia dago Euskal Herrian eskola elebidunak dakarren ahalegina nolakoa den jakiteko. Ahalegin eta bitarteko guzti horiek ez dira bideratuko, ordea, Euskal Eskola Publikoa benetakoa eta kalitatezkoa egin nahi ez bada, ezta euskarari, eta beraz elebitasunari, bigarren mailako edo osagarritzko garrantzia ematen zaion neurrian.

2.6.- Eskolak euskarari eman beharreko tratua normaltasunaren ikuspegitik planteatu behar da. Elebitasunaren aukerak berak irakaskuntza, progra-

mak, funtzionamendua, harremanak euskaraz bideratzeko egokiera eskaini behar du. Gogoan hartzekoa da irakas helburuak eta barne jardunak batera behar dutela. Euskaraz irakatsiko duen eskolak, euskaraz funtzionatuko duen sistema eskatzen du.

Euskal Eskola Publikoak ez du euskara komunikazio tresna izatera mugatu behar, ezta lege eskakizun soilera ere. Hizkuntzak berekin duen kultura eka-rria, mundu sinbolikoa, eta ikuskera bete-betean txertatuko ditu eskolak hezi- ketaren etengabeko sorkuntza ahaleginean.

3.- EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN LEGE ZIRRIBORROAREN HAINBAT ALDE KEZKAGARRI

Euskal Autonomi Elkarteko hizkuntza araubidean orain arte gidari eta gailen izandako zenbait elementu gezaldu edo alboraturik agertzen da, halako neu- rri batean, Lege zirriborro honetan. Batez ere, ondoko hiru elementu hauen trataeran ageri da, nagusiki, gezaltze edo alboratze hori: 10/82 Legeare- nean, Euskararen Aholku Batzordearenean (aurrerantzean EAB) eta Hiz- kuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiarenean (aurrerantzean HPIN). Horre- kin batera, 10/82 Legearekin lotura zuzena duen hainbat gairen trataera kezkarria erakusten du.

3.1.- 10/82 Legearen atal garrantzitsu batzuren desagertzea

Orain arteko hizkuntza politika osoa, Herri Agintean adierazpen ofizialetan, oinarritzko lege horren ildotik eraman izan da. Euskal Eskola Publikoaren Le- ge zirriborro honetan ere (aurrerantzean EEPLZ), aipamen espresuren bat egiten zaio 10/82 Legeari baina deigarriak dira beronen aldean agertzen di- tuen hutsuneak, azken batean, esaten duena baino kezkarriagoa aipatzen ez duena bait da.

- a) Lege zirriborroaren 1. atalean, bere 4. pasartean preseski, 10/82 Legea- ren aipamenik ez da egiten; eta garrantzizkoa ezezik ezinbestekoa ere ba- dirudi, Eusko Legebiltzarraren Oinarri Lege horri iturburu balioa ematea Euskal Irakaskuntzaren bizkarrezur izan nahi duen lege baten baitan.
- b) 10/82 Legearen 15. atala ondo bildurik dago EEPLZ-ren 10.1. eta 16.2. ataletan.
- c) Ezin esan, ordea, gauza bera 10/82 Legearen 17. atalaz, harrigarria bait da EEPLZ-k Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarritzko Legean hain- besteko garrantzia daukan arau honi ematen dion trataera. Izan ere, 10/ 82 Legearen 17. atalak honela dio:

“ Jaurlaritzak, ikaslegoari nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hiz- kuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantzza ema- teko xedezko neurriak hartu eta euskera giroa bermatuko du, barne nahiz kanpo-ekintzapidetan eta Arduralaritzako ihardun eta agirieta euskera agizko adierazpide eginez.”

Argi dago, beraz, “... ikaslegoari nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantzza” ematea, Euskal Hezkuntza sistema eratzeke erabiltzen diren baliabide guztiek lortu beharko luketen helbururik garrantzitsuena bihurtzen dela. Harrigarria da, ordea, horren garrantzi handiko agindu batek isladarik ez

izatea Euskal Eskolaren arautzeari ekiten dion Lege zirriborro batetan, zeinak, berezkoa zaionez, helburu hau zehaztu eta garatu egin beharko bait luke, isilpean utzi ordez.

- d) 10/82 Legearen 17. atal honekin jarraiki, beronen azken zatiak Lege zirriborroan bere oihartzun zuzena daukala badirudi ere, ez da hori benetan gertatzen.

Lege zirriborroak 21. atalean honela dio:

“Euskararen Erabileraren Normalizazio-Legeak aurrikusitakoa betetzeko, Autonomi Administrazioak beharrezko neurriak bururatuko ditu Euskal Eskola Publikoko ikastegietako jardueretan euskararen ingurugiro-erabilera segurtatzeko.”

Lege zirriborroak 21. atalean berariaz aipatzen duen eginbehar hori gehiago zehaztea komeniko da bai ikastetxe barruan, bai ikastetxetik kanpoko zerbitzu eta ihardupideetan. Bestela, oraindainokoan ikusi denaren ildotik, badago arriskua eskola giroaren euskalduntze lan global hori nagusiki enuntziatu mailan gelditzeko.

3.2. - Hizkuntza plangintza osoari dagozkion hainbat atalen trataera kezagarria

Bi dira, nagusiki, alor honetan egin daitezkeen aipamenak: ikasleen ikasteetaratzea eta irakas sistema euskalduntzeko planaren osakera.

3.2.1. - Lege zirriborroaren 11. atal edo artikulua eta 17.aren 1. pasarteak adierazten dute halako xehetasun batez, ikasleen kanalizazio hori nola egingo den. Izan ere, aipaturiko artikulua ikastegietan sartzeko erizpideak zehaztu egiten ditu, baina hizkuntza ereduari dagokiena ez du aipatu ere egiten. Hezkuntza plangintza elebidunaren arauzkotze kontuan Lege zirriborro hau (1) oraindainoko testuak baino zehatzagoa izanik ere, bildur izatekoa da puntu honek, gauzak argiago jartzen ez badira, eragozpen ohargarriak sor ditzakeela: ez dago batere argi, alegia, zer gertatuko den herri edo bilgune berean dauden ikastola eta ikastetxe publikoekin; bertako irakasteredu eskaintza, bereziki, nola banatuko litzatekeen ez da oso argi ikusten.

3.2.2. - Zirriborroak irakaslegoaren arazoa “euskarazko irakaskuntza”-ren (hau da, euskaraz zerbait irakatsi behar dutenen) beharren arabera egingo diren plan urteanitz batzuren aipamenera mugatzen du.

- a) Irakaslego eskolez eta irakaspostuak betetzeko hizkuntza erizpideez diharduten 10/82 Legearen 19. eta 20. atalek ez dute Lege zirriborroan islada zuzenik.

Ez dirudi oso egokia Euskal Eskola Publikoaren Legeak euskararen irakaskuntzarekin estu loturik dagoen eta hainbat gatazka sortzen duen gai hau isiltzea. Horretan helburuak zeintzu diren aipatu beharko litzateke.

(1) Forma aldetik ez legoke gaizki, ezinbestekoa ez bada ere, Lege zirriborroaren 3. atalburua beste era honetara idaztea: Hizkuntza Ofizialak Euskal Eskola Publikoan.

Izan ere, honexetara bideratua dirudi 10/82 Legearen 19. atalak, irakasle-
leen gaikuntzarako unibertsitate eskolek irakasleak "...euskeraz eta gaz-
teleraz erabat gai izan daitezela lortzeko egokitu dituzte bere ikasketa-
-egitarauak" esaten duenean.

- b) Lege zirriborroaren 20. atalak aski era zehatzean adierazten du irakasle-
sistemaren hizkuntza normalakuntza osoa euskalduntze plan urteanitz batez
bideratuko dela. Atal horren 2. pasarteak plan horrek izango dituen ele-
mentu nagusiak aipatzerakoan, halaz ere, hutsarte larri bat du: irakasle
aukeren (irakasle erdaldunak aukeran) eta irakasle beharren (irakasle
euskaldunak faltan) arteko desoreka berdintzeko bide bakartzat irakasle-
goaren (hots, jadanik irakaskuntzan ari den irakasle jendearen)
euskalduntze-alfabetatzea hartzen du.

Euskalduntze plan sendo batek ezinbestekoa du, ordea, desoreka hori
konpontzeko orduan kontratazio berri guztien prozedura ere begien bista-
tik ez galtzea. Orain arteko esperientziak adierazten du horixe askoz zaila-
göa (eta gero eta nekezagoa) dela irakas sistema "a posteriori" euskal-
duntzea.

3.2.3.- EEPren etorkizuneko Legeak ez luke kalterako Euskararen Erabilera
Arauzkutzeko Oinarrizko Legea argitara eman zenetik honakoan ikusi izan di-
ren zenbait ahuldade edota zailtasun berariaz tratatuko balitu. Aipagarria da
bereziki, soziolinguistikazko eskualdeari dagokiona.

Soziolinguistikazko eskualde edo zonaldearen erizpidea aukeran motx geldi-
tzen ari da, J. Fishmanek eta beste hainbatek geroz eta zorrotzago aipatzen
duten beste fenomeno hori behar bezala integratzeko: hots, luze-zabaleko
zonalde horiek baino areago eskola umeen etxegiroa, auzoa eta bizi inguru-
nea direla batipat, beren etengabeko interakzio jardun sendoarekin, lekuan
lekuko hizkuntza jokaeraren gizarte antolakera gogorrenik baldintzatzen du-
tenak.

3.3.- Euskararen Aholku Batzordearen alboratzea eta Hizkuntza Politika- rako Idazkaritza Nagusiaren ahultzea

3.3.1.- EABren alboratzea

Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legeak
(EHAA, 1988-XI-23) eta horren garapenezko 55/1989 Dekretuak (EHAA,
1989-III-21) egin behar espresuak finkatzen dizkiote Kontseilu egitura horri,
irakas sistemaren euskalduntzea dela eta. Oraingo Lege zirriborroak aski era
betean jasotzen ditu egin behar horiek bere artikulatuan. Lege-Dekretu bi ho-
riek ez dirudi, ordea, EABren hasiera-hasieratikako eginkizuna indargabetu-
rik uzten dutenik: hizkuntza plangintzaren eremu alor guztiak aintzakotzat
hartzeko sortu zen EAB 1982an, eta bide beretik doa orain bi urte inguruko
antzaldatze testua ere. Honen ondorioz, Hezkuntza alorrean ere aholkuak
ematea badagokiola EABri, aholku emaile bakarra ez izan arren.

Batzorde honen ustez on litzateke Lege zirriborro berrian, EAB berariaz baz-
tertzeo asmorik ez badago behintzat, beroni kokagune egokirik aitorzea.
Hoherik ezean 20.3. eta 17.2. atalak izan daitezke aipagunerik egokienak. Ez
legeko gaizki, horrezaz gainera, 40.2. eta 20. ataletan ere loturabiderik aur-
kitzea.

3.3.2.- HPINren ahultzea

Aurreko puntuan EABri buruz esandakoek berdintsu balio lukete, HPINrentzat ere. Lege zirriborroaren 19. ataleko c) pasartera mugaturik gelditzen da, itxuraz, hezkuntza kontuan orain arte aski zeregin esparru zabalagoa izan duen HPINren egitekoa. Gauzak behar bezala argitzen ez badira, interpretazio edota eztabaida iturri gerta daiteke.

4.- ONDORIOAK

4.1.- Euskal Eskola Publikoaren Lege zirriborroak ez du Euskararen Erabile-ra Arauzkotzeko Oinarrizko 10/82 Legea beteko denik ziurtatzen.

4.2.- Euskal Eskola Publikoaren Lege zirriborroak ez du euskaraz funtzionatuko duten irakas sistema eta ikastetxea helburutzat jotzen, are gutxiago ziurtatzen. Eskolaren zerbitzuen antolamendua diseinatzerakoan, zein ikasle eta irakasleen onarpena arautzerakoan, ez ditu jasotzen Euskal Eskolaren Legeak hartarako beharko lituzkeen erizpideak.

4.3.- Ez da orain arteko esperientzia, eta bereziki ikastolen eta benetako ikastegi elebidunen ekarria, aintzakotzat hartzen.

4.4.- Lege zirriborroak ez ditu agiri honetan jasotako erizpideak hezurmatzeko bideak ziurtatzen.

4.5.- Euskararen ikuspegitik Lege zirriborroak dituen hutsuneak gogoan hartuz, eta jaso beharko lukeen zenbait puntu isiltzen duela ikusiz, kezkatzeko da hizkuntza arazo Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren esku bakarrik geratzea. EABren eritziz, HPINk badu esatekorik eta egitekorik lege arauak agintzen diotena betez.

EUSKO JAURLARITZA

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA



GOBIERNO VASCO

CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA